



PRENTSA-OHARRA

Iruñeko Udalak teknologia berriei buruzko doako 12 ikastaro eta sei tutoretza-saio telematiko eskainiko dizkie emakumeei, Ematic zentroan

Gaur hasita eta apirilaren 10era bitarte eman daiteke izena 010 edo 948420100 udal-telefonoen bitartez, eta lekuak zozketa bidez esleitu dira

Gaur, martxoaren 26an, astelehenarekin, Ematic zentroan (Compañía k., 29) antolatzen diren gaitasun teknologiko eta digitaletan trebatu eta ahalduzko 12 ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du Iruñeko Udalak. Adin guztietako emakumeei zuzenduak dira, informatika-ezagutzak izan zein ez, hainbat maila eta iraupenetakoak. Apirilaren 10era bitarte, asteartearekin, eman daiteke izena. Iruñean errolatuta daudenek lehentasuna izango dute, eta lekuak zozketa bidez esleitu dira.

IKTen inguruko hastapen-mailako bost ikastaro eskainiko dira, 60 urtetik gorako emakumeendako, non ikasiko baitute erabiltzen tableta eta Windows 7 duten ordenagailuak, Interneten nabigatzen, Interneten bidez buruari eragiten eta *smartphone*ari ahalik eta etekin handiena ateratzen. IKTen prestakuntza aurreratua nahi duten emakumeendako, testu-editoreak zein kalkulu-orriak erabiltzen eta album digitalak sortzen sakontzeko ikastaroak eskainiko dira. Halaber, maila aurreratuko beste ikastaro batzuetan irakatsiko zaie ahalik eta etekin handiena ateratzen telefono adimendunari, tabletaren erabilerak eta funtzionaltasunak ezagutzen, egiaztagiri digitala eta sinadura elektronikoa erabiltzen eta fitxategi eta programekin (instalazioa eta desinstalazioa) lan egiten. Gainera, sei tutoretza-saio telematiko egongo dira, unean-unean, whatsapp, Googleren egutegia eta *smartphone*ko argazkiak kudeatzeko ikasteko.

Interesa duten emakumeek izena eman beharko dute 010 Herritarrendako Arreta Telefonoan (948 420 100, Iruñeaz kanpotik, mugikorretik edo telefono-operadore baten tarifa lauaren barruan deitzen bada). Arreta-ordutegia 08:00etatik 19:00etara da. Argibide gehiago eskura daitezke www.pamplona.es webgunean, 948224594 telefonoan eta zentroan bertan (Compañía k. 29).

Udal baliabide honek ere aukera ematen du ordenagailuak eta Internet modu librean erabiltzeko, zalantzak argitzeko laguntzarekin, @CCEDETIC programari esker. Zentroa





astelehenetik ostiralera dago zabalik, 10:00etatik 13:30era eta 16:00tatik 19:30era; eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara.

Zentroaren helburuak dira urratsak egitea berdintasuna erdiesteko bidean eta gizon eta emakumeen arteko arrakala digitala txikitzea, eta horretarako adin guztietako emakumeen eskura jartzen ditu IKT baliabideak eta zerbitzuak. Hori horrela, Udalak zenbait ekimen bultzatzen ditu, xede dutenak emakumeen desabantaila desagerraraztea Internetaren, ordenagailuaren, sare sozialen eta mugikorren erabileraz bezainbatean; izan ere, desabantaila hori ekonomia, politika, gizarte, kultura edo lan arloetan ematen diren bestelako desparekotasunei gehitzen zaie.

COMPañÍA ZENTROA. IKT-GAITASUNAK BERDINTASUNA LORTZERA BIDEAN. ENRED@TIC

Hasierako prestakuntza. 60 urtetik gorako emakumeak.

- Tableta nola eta zertarako erabili. Apirilak 23 – Maiatzak 4. 18:00 – 19:30. (12 leku)
- Windows 7 ordenagailua erabiltzea. Apirilak 7 – Maiatzak 18. 10:00 – 11:30. (12 leku)
- Interneten nabigatzen ikasi. Maiatzak 21 – Maiatzak 25. 18:00 – 19:30. (12 leku)
- Buruari eragin, Interneten bitartez. Maiatzak 28 – Ekainak 1. 18:00 – 19:30. (12 leku)
- Nola erabili probetxuz *smartphone* mugikorra. Ekainak 18 – Ekainak 29. 12:00 – 13:30. (12 leku)

Prestakuntza aurreratua. Adin guztietako emakumeak

- Testu-editoreen erabileran sakontzea (testu-edizio aurreratua). Apirilak 23 – Maiatzak 4. 16:00 – 17:30. (12 leku)
- Nola erabili probetxuz *smartphone* mugikorra. Maiatzak 7 – Maiatzak 18. 12:00 – 13:30. (12 leku)
- Nola erabili kalkulu-orriak? Maiatzak 21 – Ekainak 1. 16:00 – 17:30. (12 leku)
- Album digitalak sortzea. Ekainak 4 – Ekainak 15. 10:00 – 11:30. (12 leku)
- Tableta nola eta zertarako erabili. Ekainak 4 – Ekainak 15. 12:00 – 13:30. (12 leku)
- Ikasi egiaztagiri digitala eta sinadura elektronikoa erabiltzen. Apirilaren 21etik maiatzaren 19ra, larunbatetan. 10:00 – 11:30. (12 leku)
- Ikasi fitxategiekin (kopiatu, grabatu, USBa erabili) eta programekin (instalatu eta desinstalatu) lan egiten. Ekainaren 2tik 30era, larunbatetan. 10:00 – 11:30. (12 leku)

Tutoretza-saio telematikoak

- Nola pasa argazkiak *smartphonetik* ordenagailura? Apirilak 18. 18:00 – 19:30. (12 leku)

2. orrialdea, (e)tik 3





- WhatsAppeko komunikazio-aukerak esploratzea. Maiatzak 9. 17:30 – 19:00. (12 leku)
- Ezagutu Google Maps-en baliabideak *smartphonean*. Maiatzak 16. 17:30 – 19:00. (12 leku)
- Ezagutu Googleren egutegiaren baliabideak Ekainak 6. 17:30 – 19:00. (12 leku)
- Nola pasa argazkiak *smartphonetik* ordenagailura? Ekainak 13. 17:30 – 19:00. (12 leku)
- WhatsAppeko konfigurazio-aukerak esploratzea. Ekainak 20. 17:30 – 19:00. (12 leku)

Iruñean, 2018ko martxoaren 26an

